

TOMAS GARBIZUREKIN SOLASEAN

Lezoko herrian badira, bai, pertsonai ospetsu eta xelebreak. Garai batekoak eta bai bestekoak, atzokoak eta gaurkoak.

Jendeak ez liguke barkatuko pertsonai guzti hauek hemen, ASKEEn ez bagenituzke aurkeztuko. Eta beren bizitzetatik, ekintzetaz, izan direnengatik edo direnengatik piska bat ez idaztea ere.

Oraingo honetan, ospe haundiko eta xelebretasun gutxiagokoa ez den TOMAS GARBIZU musikariarekin solasean jardun dugu.

Patxi Intxaurreaundietaren eskuz, hemen doakizue bada berarekin edukitako elkarrizketa.

ASKE: Zu 190lean jaio zinen. Nolakoa zen zure gaztaroko Lezo hura?

T.GARBIZU: Lezo herri maitagarria zen; batez ere baserri alde hura. Baina orain asko galdu du. Herria bera ere oso maitagarria zen. Dena den, gogoan dut nola ziren bi edo hiru aldetako kastak: haundixkiak (dirudunak). Beren diru izate hura ibiltzeko moduan ere ezagutzen zen. San Isidrotara joaten ziren Madrilera... eta guk San Isidorrik bazen ere ba al genekien ba? Gure ama ez zen joaten; hura txerriak kontzen; ni ere bai. Nik txikitari amari zera esaten nion: "baina ama, guk ez al dugu etxeren bat edo... zelairen bat edo... denek badute". Hark "ez maitia" edo "bai maitia, zu denak baino aberatsagoa zara" erantzuten zidan.


Gogoan dut Don Pedro Barrios orduko medikua. Ez zen euskalduna, Zaragozakoak. Denak sendatzen zituen euskaraz zizkien bi hitz bakarrekin: "Zalda berua". Besterik ez zekien. Donostiako tetrora abonatua zegoen, beti lehenengo filan. Konpania guztiek ezagutzen zuten.

ASKE: Zaragozakoak izanik ez zekien euskaraz. Nola konpontzen zen herriko jendearekin?

T.GARBIZU: Ondo. Baserrietan jakingo zuten zer edo zer erderaz ere. Nik ez nekien erderaz; oso gutxi. Lezoko bikarioak behin proba bat jarri zidan: "Jauna, eskeintzen dizut egun honetako lan eta neke guztiak" erderaz jarri behar nuen. Eta nik: "Te ofrezco Señor los trabajos y los cansa todos de este día". Nik ez nekien erderaz. Agian Don Pedro medikuak gehiago jakingo zuen euskaraz nik erderaz baino.

Bi mediku ziren Lezon; Fernando Carril bestea. Goizuetatik etorria zen. Honek ere ez zekien euskaraz. Etxe dotorea zuen, jardin ederrarekin eta. Bere semeek bazuten bizikleta eder bat. Ni bizikleta haren atzetik ibiltzen nintzen. Askotan, bizikleta zegoen tokira joaten nintzen eta gainean eseritzea bakarrarekin, pozik gelditzen nintzen. Handik berriz goiko sorora jostatzerara...

Beste gauza atsegina: baserri alde hura. Hango sagarrak, gereziak, zelaiak, hango ixiltasuna. Orain berriz, kea eta... Ni ez naiz aurrerapenen kontrakoa baina...



Beste gauza goxua: Sagardotegiak. Bonifazio Pagolak egiten zuen sagardo bikaina. Baita Adrian Salaberriak ere, eta Indionekoek... Tokan ere aritzen ziren. Ni ere sartzen nintzen, sekulako "axertua" nuen.

Beste gauza goxua: Ilunabarreko pelota-partiduak. Estanis Salaberria oso ona zen. Baita gure anaiak Daniel eta Juanito; eta geroago oso ona Liborio, hau batez ere palaz. Orduan ez zen ezker-paretarik, eskuinekoa baizik; kontrakoz alde aritu behar zen. Eta gainera frontisa, dena kroskaz beteta. Handik pelotari onena ateratzen zena "kanpeon de Gipuzkoa" nahi ta nahi ez. Han pelotak pareta jo eta nondik

aterako zen erne egon behar zen gero...Apaizek ere jokutzen zuten:Don Eusebiok,Pildainek,nere anaia Josek (pelotari ona zen).Sotana altxa,zinturoia jarri eta han ibiltzen ziren. Altzara ere joaten ziren eta ni haien atzetik;gero intxaurrak eta jatera.

Kaia alde eta gogoan dut.Baina horrek irabazi egin du.Orduan lohia besterik ez zen han.

ASKE: Musika alde batera utzita,zer nolako ikasketak egin zenituen?

Zer moduzko ikaslea zinen?

T.GARBIZU: Txarra.Musikarako ona,baina beste gauzetan txarra.Ez zuten uste askok baina nik badakit txarra nintzela.Batez ere matematikan eta...Nik barruan sartuta neukan lanik egin gabe biziko nintzela."Ni aiuntamentuko ofizinan jartzen banaute hilko naiz" esaten nion nire buruari.Edo ta "enpresa batean sartzen banaute,han joango da dena hankaz gora".Eskolara Errenteriarara joaten nintzen Don Ziprianorengana,eta eskolako lanak egiteko Benantxiori ematen nizkion.Hark egiten zizkidan denak.

ASKE: Noiz konturatu zinen zurea musika zela?

T.GARBIZU: Ez,neri ez zaizkit gustatzen holako "zurea musika" eta... Beste gauzetarako ez nuen balio eta horrekin geratu behar. Beste gauzak ez zitzaizkidan gustatzen."Cual es el monte más alto...?" "a mi que me importa,si no voy a subir".Baina musika hurbilago zegoen neretzat.Organora joaten nintzen.Jose anaiarekin hasi nintzen.Oso pixkorra zen.Askok uste dute ni baino pixkorragoa zela musikarako,baina nik badakit ezetz. Gauzak demostratu egin behar bait dira.Karramarroek ere jakingo balute matematika,ni baino pixkorragoak izango liratenke.Baina ez dakite.

ASKE: Arantzazu,Donostia,Madril,Paris...bide luzea eta ikasketa sakonak.

Pena merezi zuen ala orain,denborak ematen duen perspektibarekin ikusita,zerbait utziko zenuke bide bazterrean?

T.GARBIZU: Arantzazukoa ez da asko. Gaztetakoa hasiera besterik ez da. Handik aurreko saltoa bilatu behar da. Ni Madrilera joanik pozik nago. Joanik edo bidalirik. Nik gerrako konturik ez dut esan nahi. Horiek neretzat gordetzen ditut. Hasiko banintz trumoiak ere izango lirateke.

Madrilen jende asko bizi da. Eta jende asko bizi den tokian onetik eta txarretik asko izan behar. Eta konturatzen zara izen handiko gizonak ez direla beti izan handikoak. "Mundu guztian txakurrak hanka hutsik". Halako lekutan beharrik bultzatzen zaitu gauzak egitera. Hau edo hura ez duzu gogoko baina egin beharko biziko bazara. Eta hori ona da.

Nik orduan Madrilen teatroetan jotzen nuen organoa. Lidi Murati artistak esaten zidan: "Maestro, cuándo toca usted el órgano?", eta nik: "Cuando ponga la partitura". Eta hark: "Tocue usted cuando quiera. A mi me anima mucho". Berebiziko gli-sandoak eta egiten bait nintzen.



Hola, orkestekin eta jotzen. Eta hemen zer egin behar nuen ba? San Pedron organoa jo eta kitto. Hori ez da kastikoa; hori herriak ematen duena da. Este pueblo no da para más... Nik izena non hartu behar nuen ba? Gero akademiko egin ninduten Madrilen, zerbaitengatik izango zen ezta? Gero premioak irabazi baina lorik hartu gabe. Artistak bi gauz behar ditu: bata, dohaina eta bestea jendearen aurrean egoten jakitea.

Gero Frantziako enbajadako organista izan nintzen. Behin meza nagusi elebrea izan nuen. Meza entzutera enbajadorea ofizialki etorri zen. Eta bazen enbajadan inoiz obispo izatera iritsi ez zen apaiz afanoso bat. Denek gizon ospetsutzat zuten; nik kontrabandista bat bezala, hala bait zen. Organuaren motorra itzali nuen sermoi garaian, baina ez

zen momentuan erabat gelditu hotsa. Hau esaten dit aldare-
tik apaizak frantsesez: "Geldi ezazu motorra", eta nik koru-
tik Xenpelarrek bezala: "aspalditik itzalia dagoela". Bere-
hala pentsatu nuen: "Garbizu, oraingotik Lezora joan beharko
duk" . Meza bukatuta erretoreak bere aurrera joateko agindua
bidali zidan. "Le he llamado a usted porque ha estado formi-
dable", esan zidan eta gainetik bazkaltzera gonbidatu nindu-
en. Berak ere ezin zuen ikusi sugurraren puntan apaiz hura.

ASKE: Gero hemen, Donostian, hemezortzi urte egin zenituen Kontserbatori-
oan. Nolako baldintzak bete behar ditu irakasle batek? Ezer ikasten
al da irakatsiz?

T.GARBIZU: Irakasle batek pedagogoa ona behar du izan. Eta adierazi ikas-
leari gauzak diren bezala. Bestalde, exigitu ere bai. Ez badu
pasaje bat errepikatu behar, ez dezala errepikatu; baina bi
egun egon behar badu errepikatzen, egon dadila.

Nik irakatsitako organista asko eta onak atera dira.
Nik barruan nuen guztia ematen bait nuen eta dirurik ira-
bazi gabe. Hirurehun pezeta irabazten nituen nik ("como si ga-
nara ochenta mil"). Irakasten oso zorrotza nintzen: fraseoa
ondo egin, tranparik gabe... eta abar. Nik zorrotz fama banuen
ere jendeak neregana etorri nahi izaten zuen esaminatzera;
zerbaitengatik izango zen.

Nere ustez nik kontserbatorioan oraindik urratu ez
den inpronta bat utzi nuen. Nerekin ikasi dutenen artean en-
tzunenak agian hauek dira: Derteano, Alberdi, Coro Saez, Aita
Ondarra, Esteban Elizondo, Aita Etxeberria...

ASKE: Orain dela gutxi Lezon martxan jarri den Udal Akademiako ikasleei
zein aholku emango zenieke?

T.GARBIZU: Aholkua, ba, inportantea solfeoa ondo egitea dela. Batzuek pre-
sa izaten dute instrumentoa ikasteko eta nolana nahi pasa nahi
dute solfeoa. Baina, solfeoa ondo ikasi behar da. Bestalde, me-
todo gehiegirik ez da behar. Gaur egun metodo gehiegi daude.
Metodo egokiena, seriotasunez lan egitea da. El trabajo es sa-
grado (eta besteak esaten zuena: "¡no lo toques!"), ez, lan

egin behar da. Nik, orduan esango nieke: "Lezo pixkorra da; lezotarra pixkorra da, adimen argikoa. Gai bat sakon hartzen badu gauza da aurrera ateratzeko". Bestalde "sentido del ridículo" handia du. Ahal duera baino gehiago egitera ez da Nolanahi ausartuko. "Sentido del ridículo" esaten dudanean "Sentido de la responsabilidad" esan nahi dut.

Lezon gizon argi asko izan da. Pintore bezala Elias aparta izan zen, baina beste maila batean hor daude Mateo Salaberria, Rikardo, nere iloba Imanol... Idazle bezala hor dabil Patri Urkizu. Ebanista oso bikainak, Manuel Salaberria, Manuel Intxaurrendieta. Apaizak. Pildain obispoa eta abar luze bat.

Lezo pixkorra
Besteko seme bat
Lantu-umasa
Antonia

Tanto lo mismo

Y. Kano gaita - tik Jara

... mende - a

Jauki - bet mende - a

... ki bet a no - tar

Akademiak, beraz, kontuan izan behar du lezotarrak pixkorrak direla. Lezon "materia prima" ugaria eta ona badagoela.

Patxi INTXAURRENDIETA